

## **Bilbon, Euskaltzaindiaren etxean, 1929'ko Ofilaren 27'an.**

Batzaŕean euskaltzain jaun abek bildu dira: Azkue maipuru, Urkijo, Landeŕetxe, Eguskitza, Olabide, Altube, Intza, Lakonbe ta urgazletatik Ormaetxea jauna. Ofoitz egin da.

I.—Euskaltzainburu jaunak esan digu: Gotzai jaunarekin orain dala gutxi, izketa bat izan duela, eta eliz-barutian euskerari dagozkion gauzez ere luze itz-egin dutela. Euskaltzaindiari ongi deritzaio.

II.—*Arakaldo* deitzen dan eŕian, eŕitarak euskera darabilkite ta bertan daukaten apaizak euskeraz eztaki. Auxe adierazo bear zitzaion Gotzai jaunari ta Euskaltzaindiak adierazo dio.

III.—Lengo batzaŕetan Schuchardt-sarirako izen-datu zan batzordeak erabakia dakar. *Usauri* irakurgai bakaŕa zan ta auxe sarigafi deritza. Euskaltzaindiak pozik damaio irakurgaiari agindutako saria; bañan Eguskitza jaunak dakarzkien oarŕak ezaŕita. Egilea, *Agustín Anabitarte* jauna gertatu da.

IV.—Gure urgazle G. de Saint Jayme-k egutegi bat gipuzkeraz eia lapurteraz argitaratu nai luke. Esan bear zaio: ontarako laguntzaile egokia lukela Isaak Lopez Mendizabal jauna, lan abetan oso jarduna.

V.—*Baschischen Studien*-en itzulpena egiñik dago: gure *Euskera*'n argitaratu bear da, bañan ortara baño len, Urkijo jaunak oarbide batzuek ezaŕi bear dizkio.

VI.—Azkue jaunak bere lan bat irakuŕi digu: lengo *Evolución de la lengua vasca*-ren jaŕaipena. Gai abetxek azaldu dizkigu: *Arcaismos lexicales-Fonética y Ortografía. Elementos de otros dialectos vascos y románicos.*

Ta ontaz amaitu da batzaŕaldia.